

ESPERIENTZIAREN IZENA: Euskal Herriko Bilgune feminista



ONARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Euskal Herriko Bilgune Feminista.
- **Erakunde mota:** Elkarte feminista.
- **Sortze-urtea:** 2002.
- **Jarduera-sektoreak:**
 1. Euskal Herriko prozesu demokratikoan eta gatazka politikoaren konponbidean emakumeen parte-hartzea eta ikuspegi feminista txertatzeko jarduna.
 2. Eredu ekonomiko eta sozial berri baten aldeko borrokan, urgentziazko egoerak salatzeaz gain, alternatiba sozio-ekonomikoak sustatzeko eragile sindikal eta sozialen arteko aliantza indartzea.
 3. Indarkeria sexista: Autodefentsa Feminista.
 4. Komunikabideak: GABILTZA, Emakume Adituen Biltoki Digitala.
 5. Hezkidetzeta.
 6. Herri-jai feminista. Jaietan indarkeria sexistaren prebentzioa eta denuntzia. Jaietan, espazio publikoan emakumeen parte-hartzea. Herrialdean dauden jai diskriminatzaileak desagerrarazteko lana.
 7. Sexualitatea. Sexualitatea plazerraren kudeaketa bezala, beste sexualitate ereduak ikustarazi, gizon-emakume dualtasuna hautsi, eta heterosexualitatea arau bezala hautsi, eta abar.
 8. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista.
 9. Praktika politikoaren inguruko hausnarketa ideologiko eta praktikoa.
 10. Nazioarteko alianza antikapitalista, internazionalista eta feminista.
- **Egitura:** SAREaren funtzionamenduan oinarritzen da bere jarduna:
 - 20 herri inguruetan dituzte taldeak.
 - Ildoetako lan talde nazionalak (Autodefentsa feminista, 15.urteurrenoko lan-taldeak...)
 - Hilabetero batzar nazionala (erabakigunea) antolatzen da militante orok parte hartu dezan (130 militante).
 - Bi urtero Emakume Abertzaleen Topaketa Feministak antolatzen dira, aurrera begira estrategia feministaren lanketarako (700 feminista inguru).
 - Bilgune txikia: hartzen diren erabakiak gestioatzeko gunea. Liberatuak daude bertan (4 pertsonak osatzen dute)

Kokapena: Gudarien etorbidea. Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain

Webgunea: www.bilgunefeminista.org

Esperientziak jorratzen duen gaia: Euskal Herriko Bilgune Feminista.

Jarduera eremua: Nazionala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Harremanetarako pertsona: Saioa Iraola

Telefona: 943 590 902

Helbide elektronikoa: info@bilgunefeminista.org

SINTESIA



ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Euskal Herriko Bilgune Feminista (EHBF) 2002an sortutako nazio mailako erakunde feminista eta abertzalea da, esparru ugarietako emakume asko eta askotarikoen hausnarketatik sortutako egitasmoa. Tradizio feminista jakin baten oinordekoak gara, euskal feminismoaren eta euskal feministen oinordekoak. Hark ezartzen digun zapalkuntza hirukoitzaren (klase-zapalkuntzaren, nazio-kultura zapalkuntzaren eta sexu-generoaren zapalkuntzaren) aitortzatik abiatuz aztertzen dugu errealitatea eta ikuspegi horretatik egiten diogu aurre errealitate horri. Pixkanaka, askotariko zapalkuntza horien elkarreraginean eta intersektionalitatean jarduten dugu, zapalkuntza-sistema orotatik askatu eta Euskal Herri burujabe eta feminista baten aldeko borrokan.

TESTUINGURUA



Zeuden beharrak: Patriarkatua egiturazkoa izanik, erantzuna egiturazkoa izatea.

Aldeko aurrebaldintzak: Euskal Herriko genealogia feminista. Euskal feminismoaren ibilbide luzea.

Aurkako aurrebaldintzak: Zapalkuntza hirukoitza (klase-zapalkuntza, nazio-kultura zapalkuntza eta sexu-generoaren zapalkuntza).

INFORMAZIO OROKORRA



Zer lortu nahi zen?

- Euskal Herriaren burujabetza feministaren bidean, trantsizio feminista ezaugarritzea, eta bide horretan aurrera joatea, euskal herritarrek eremu ideologiko, politiko eta ekonomikoan bizi dituzten zapalkuntza guztiei "topeak" jarriz eta herritar guztiontzako bizitza duinak bermatzeko jardunez.
- Euskal Herriaren aldaketa sozial eta politikorako abian diren prozesu kolektiboetan parte hartzea, eta ikuspegi eta saretze feministan urratsak ematea, bizi-baldintza duinen aldeko lanketa eginez, bai eta ondo bizitzearen eta bizitza duinaren kontzeptualizazio-prozesuan urratsak emanez ere.
- Testuinguru neoliberal honetan, sistema patriarkalak "berdintasun faltsuaren" baitan jendartearen ezarritako forma eta adierazpideak zalantzan jartzea.
- Gaur egungo familia-ereduak, lagunarte-ereduak eta sexuen artekoak zein sexu-identitate hegemonikoek sorrarazten dituzten kalteak azalera; horretarako, bultzatzen dituzten bizi-ereduen helburu eta baloreak agerian utziz. Sexu, genero eta sexualitate binomioak hautsi, eta identitate kolektibo eta indibidual berriak sortu eta berrasmatuz.
- Emakume abertzale feministen sarea indartzea eta kohesionatzea, etorkizuneko konpromiso eta akordio politiko berriak zehazteko, eta horrez gain, Euskal Herriko Bilgune Feministaren proiektu politikoa erreferentzializatzea, barne-antolakuntza eta -jardunaindartzuz.

Zer lortu zen?

- Artikulazio feminista Euskal Herrian, mugimendu feministan eta eraldaketa agente ezberdinekin.
- Gero eta feminista gehiago eragiten esparru ezberdinetan egotea. Euskal Herrian feminismoa gero eta gehiago aintzat hartzea.

Nola lortu zen?

- Emakumeak subjektu politiko bilakatu, eta beren bizitzaren aldaketarako protagonista izanik. Herrietan eta beste hainbat eremutan emakumeen autoantolakuntza bultzatzen jarraituz, jabetze- eta ahalduzko-prozesuak sustatuz, duintasunez bizitzeko erresistentzia-mekanismoak ezarriz (hala nola autodefentsa feminista eta zaintza-sareak) eta oinarri sendoa izango duen mugimendua sortzen jarraituz. Horretan, ahalduzko-prozesu horiei hainbat norabidetatik helduz: informatzea, formatzea, hausnartzea, elkar entzutea, ikastea, bizitzea...
- Mugimendu feminista politikoki aitortuz eta mintzaide politiko gisa onartuz. Mugimendu feminista izan da eta da Euskal Herriko emakumeen interesak defendatu dituen eragile nagusia, eta alde horretatik, mintzaide politikoa izan behar du bai erakunde publikoentzat eta alderdi eta sindikatuentzat, bai gainerako mugimendu sozialentzat ere. Era berean, garrantzitsua da talde feminista anitzen arteko elkarlana eta unean uneko aliantzak eta alianza estrategikoak lantzen jarraitzea. Egun, mugimendu feministarekin unean uneko aliantzak baditugu, baina intziditu ahal izateko, epe luzearako kontsentsuak behar ditugu.

- Herri-mugimenduekin, mugimendu sozialekin eta hainbat jakintza-esparrurekin elkarlana sustatuz. Euskal Herrian burujabetza lortzeko, nahitaezkoak dira beste borroka batzuen ikuspegiak eta eremu ezberdinetan lanean ari garenon arteko aliantza eta elkarlana. Horietan parte aktiboa izatea eta sor daitezkeen berrietan parte hartzea herriaren kontra-boterea sortzeko ezinbestekoa da.
- Euskal Herriaren burujabetza feminista erdiesteko, lidergo feminista osatzeko pausoak emanez.

Nork ahalbidetu zuten?

- Emakumeen eskubideen aldeko borroka sustatu eta parekidetasunaren alde pausuak ematen dituzten eragile zein pertsona feminista eta ezkertiarak.

Arrakasta faktoreak

- Sarean antolatzea: feminista orok helburu amankomun batzuk eta estrategia feminista partekatzea.
- Militantzia eredu aldatu izana: sakrifizioan oinarritzetik, egunerokoan eta esparru anitzetan eraldatzera pasatzea.
- Euskaraz feminista gisa pentsatzea eta diskurtso eta praktika feminista euskaraz egitea.
- Ikasitako irakaspenak
- EHBFF proiektu nazional feminista baten beharrari erantzuteko ahalmena izan du.
- Egiteko era berriak sortu behar izan dira eta EHBFF behar honi moldatzeko ahalmena izan du.
- EHBFF sortu zenetik aldaketa sozial, politiko eta ekonomiko handiak egon dira (Euskal Herriaren egoera sozial, politiko eta ekonomikoan, feminismoaren garapenean eguneraketa, patriarkatuaren formetan, Euskal Herriko militantzia formetan, eta abar) eta EHBFF estrategia politikoa eguneratzeko beharrari erantzuteko ahalmena izan du.

Etorkizunerako erronkak

- Intzidentzia politikoa lortzea: Feministek erabakiak hartzeko ahalmena edukitzea, herri bezala eta baita herritar bezala ere, eta horretarako antolakuntza ezinbestekoa da.
- Mugimendu feministak eremu ezberdinen inguruan eztabaidarako gune bat lortzea (espazio fisiko bat).